



**Mondragon  
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea

DBHn, Batxilergoan,  
Lanbide Heziketan eta  
Hizkuntzen Irakaskuntzan  
irakasle gisa aritzeko gaitzen  
duen Unibertsitate Masterra

## **PRESENTZIALA DUAL / ERDI-PRESENTZIALA**

[www.mondragon.edu/bhm](http://www.mondragon.edu/bhm)





A portrait of Irene Larrañaga, a woman with long dark hair, smiling and holding a book. The background is a blurred indoor setting.

# Irene Larrañaga

Azpeitia

*“Nire profil pertsonala eta profesionala garatzeko aukera eman dit BH Unibertsitate Masterrak eta etorkizuneko ikasleen beharrei ahalik eta erantzun onena emateko asmotan, etengabeko berritze batean dago. Gainera, eredu dualean gauzatu izanak, teoria eta praktikaren uztarketa ahalbidetzen du, eta aldi berean, praktiken jarraipen sakon eta kontzientea egitera bultzatzen gaitu”.*

A portrait of Gaizka Bellido, a man with short dark hair, smiling. The background is a blurred indoor setting with large windows.

# Gaizka Bellido

Arrasate

*“Unibertsitate master honek ikas-irakaskuntza prozesuak ulertu eta nire irakasle izaera garatzeko balio izan dit. Talde lanek ikuspuntuak partekatzen laguntzen dute eta erabiltzen den metodologiak hausnarketa sakonak egiten laguntzen du, eta zein motatako irakaslea izan nahi dugun definitzen laguntzen digu. Gainera, oso talde anitza gara, irakasleak izateko nahia konpartitzen dugun profil desberdinetako ikasleak elkartu gara, eta aniztasun horrek, taldea aberasten dakar”.*

A portrait of Goiatz Astondoa, a woman with glasses and her hair in a bun, wearing a grey turtleneck sweater. The background is a blurred indoor setting.

# Goiatz Astondoa

Otxandio

*“Irakasle izateko beharrezkoak diren gaitasunen inguruan eta izan nahi dudan irakaslearen inguruan hausnartzen lagundu dit BH Unibertsitate Masterrak, eta ondorioz, lehen nuen irakasle izatearen ikuspegia erabat aldatu dit. Horretarako gakoak izan dira ikasleen arteko lankidetzeta eta harremanetan oinarritutako ikas-irakas prozesua”.*

# Master honek **DBHn, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen irakasle** gisa aritzeko prestatuko zaitu

## **Bi modalitate aukeran**



### **01 PRESENTZIALA Duala**

- Urritik ekainera.
- Goizez.
- Unibertsitateko eta ikastetxeko egonaldiak txandakatuz.
- Bi tutoreren jarraipen pertsonalizatuarekin.
- Erronketan oinarritutako ikaskuntza.
- Euskal Herriko hezkuntza sistema ardatz.
- Euskaraz.

### **02 ONLINE + Saio presentzialak**

- Urritik ekainera.
- Online + Saio presentzialak.
- 13 ECTSko practicuma bi alditan banatuta.
- Jarraipen pertsonalizatua.
- Erronketan oinarritutako ikaskuntza.
- Euskal Herriko hezkuntza sistema ardatz.
- Euskaraz.

# Zergatik Mondragon Unibertsitatean?

- Practicumean ardaztutako ikaste prozesua.
- Talde lana.
- Jarraipen pertsonalizatua.
- Irakaskuntzaren ikuspegi globala.
- Irakasle ikertzailea.
- Ratio txikiak.
- Profesionalizatzailea.
- Pertsona ardatz.

## Nori zuzendua


Lau espezialitate eskaintzen ditugu:



**HUMANITATEAK  
ETA GIZARTE  
ZIENTZIAK**



**HIZKUNTZA  
ETA  
LITERATURA**



**TEKNOLOGIA**



**NATUR  
ZIENTZIAK ETA  
MATEMATIKA**

## Konpetentzia profesionalak

- Bigarren Hezkuntzako ikastetxe zein ikasgeletan aritzeko prestatuko zaitugu.
- Zure espezialitateari dagozkion irakaskuntza eta ikasketa prozesuak planifikatu, garatu eta ebaluatuko dituzu.
- Ikaskidetzan, berrikuntzan eta ikerketan hartuko duzu parte.



# ARAZO, KASU ETA PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO PROZESU DIDAKTIKOAK

## Metodologia

- Erronketan ardaztutako eredia erabiltzen dugu, azterketen ordean, konpetentzia profesional eta pertsonalen garapena bermatuz bakarkako eta taldeko lanen bidez.
- Europar proiektuaren bermea:  
Master honek parte hartzen du DUAL eredia ezaugarritu eta kalitate irizpideak ezartzen dituen ApprenticeshipQ europar proiektuan.



## Practicuma

Modalitatearen arabera, bi practicum eredu:

### 01. PRESENTZIALA Duala

Eredu DUALA. Ikastetxe berritzaileetan eta urte osoan zehar, unibertsitate eta eskola arteko egonaldiak tartekatuz eta ikastetxeko kide bihurtuz.

### 02. ERDI-PRESENTZIALA Online + Saio presentzialak

Zure beharretara egokitutako praktikak.

## Master Bukaerako Lana (MBL)

Testuinguru erreal bati erantzuneko dion heziketa proposamen baten garapena izango da, gaien aditua den tutore baten zuzendaritzapean.



# DBHn, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen

## Unibertsitate Masterra

### Espezialitateak

Lau espezialitate ezarri dira master honen prestakuntza-eskaintzan, arreta berezia eskainiz Euskal Autonomia Erkidegoko lan-eskaintza publikoan parte hartu ohi duten katedradunen kidegoetako eta Bigarren Hezkuntza nahiz Lanbide Heziketako Dekretuan araututakoari (2008ko azaroaren 28ko BOE).

#### MASTERRAREN ESPEZIALIZAZIOAK

#### SARRERA ZUZENEKO TITULAZIOAK

<b>NATUR ZIENTZIAK ETA MATEMATIKA</b>	Biologia / Bioteknologia / Ingurumen Zientziak / Itsas Zientziak / Farmazia / Fisika / Geologia / Matematika / Kimika / Biokimika / Ingeniaritzak / Arkitektura
<b>HUMANITATE ETA GIZARTE ZIENTZIAK</b>	Administrazioa eta Enpresen Zuzendaritza / Giza eta Kultur Antropologia / Zuzenbidea / Ekonomikak / Filosofia / Geografia / Historia / Artearen Historia / Humanitateak / Soziologia / Ikus-entzunezko Komunikazioa
<b>HIZKUNTZA ETA LITERATURA</b>	Filologia guztiak / Ikus-entzunezko Komunikazioa / Kazetaritza / Publizitatea eta Harreman Publikoak / Itzulpena eta Interpretazioa
<b>TEKNOLOGIA</b>	Bioteknologia / Fisika / Ikus-entzunezko Komunikazioa / Ingeniaritzak / Arkitektura

### Irakasleak

Masterra ematen duten irakasleak adituak dira bakoitza bere gaien; egunero lanean eta ikertzen ari dira gai hauen inguruan, bai unibertsitate esparruan baita ikastetxeekin elkarlanean ere.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe eta eregiek ere modu aktiboan hartzen dute parte Masterrean, dela aditu gisa hitzaldiak ematen, dela Masterreko praktiken eta Master Bukaerako Lanen definizio eta tutoretzan.

### Ikasketa plana

MODULUAK	IKASGAIA	ECTS
<b>GENERIKOA</b>	Gizarte, familia eta heziketa	4
	Heziketa-prozesu eta testuinguruak	4
	Ikasketa eta nortasunaren garapena	6
<b>ESPEZIFIKOA: KOMUNAK ESPEZIALITATE GUZTIAN</b>	Berrikuntza irakaskuntzan eta hezkuntzari begirako ikerketarako sarrera I	4
	Hezkuntza eleaniztun eta kultura artekoa	4
	Informazio- eta komunikazio-teknologiak hezkuntzan	4
<b>PRACTICUMA</b>	Practicuma	13
	Master Bukaerako Lana	6

#### ESPEZIALITATEAK

<b>NATUR ZIENTZIAK ETA MATEMATIKA HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK TEKNOLOGIA HIZKUNTZA ETA LITERATURA</b>
--

#### MODULUAK

Diziplinari begirako prestakuntzarako osagarriak	3
Dagokien ikasgaien ikasketa eta irakaskuntza	9
Berrikuntza irakaskuntzan eta hezkuntzari begirako ikerketarako sarrera II	3

## Bekak

Mondragon Unibertsitatean ikasteko arazo ekonomikoak oztopo ez izatea da gure printzipioetako bat. Horretarako beka eta laguntza programa zabala eskaintzen dizuegu.

INFORMAZIO GEHIAGO

[www.mondragon.edu/bekak-eta-dirulaguntzak](http://www.mondragon.edu/bekak-eta-dirulaguntzak)

[www.mondragon.edu/bhm](http://www.mondragon.edu/bhm)

## Informazioa

**Kreditu kopurua:** 60 ECTS

**Hizkuntza:** Euskara

**Modalitatea:** Presentziala (DUALA) eta erdi-presentziala

**Prezioa:**

**Presentziala (Duala):** 7.020 euro (60 ECTS)

**Online + saio presentzialak:** 7.500 euro (60 ECTS)

**Tokia:** Eskoriatza


**Iraupena:** Ikasturte bat, urritik ekainera

**Koordinatzaileak:** Idurre Alonso eta Nerea Lopez

**Harremanetarako:** Eunat Escandon

615 74 53 41 | [eescandon@mondragon.edu](mailto:eescandon@mondragon.edu)

[www.mondragon.edu/bhm](http://www.mondragon.edu/bhm)







**Mondragon  
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea

---

**ESKORIATZA**

Dorleta, z/g.  
20540 ESKORIATZA  
Gipuzkoa  
615 74 53 41  
eescandon@mondragon.edu

[www.mondragon.edu/bhm](http://www.mondragon.edu/bhm)

ENTITATE LAGUNTAILEA

